

OTXO MADARIKATUAK

Behin Euskal herriko herritxo batean gauza bitxia gertatzen hasi zen.

Herria mendiz inguratuta zegoen, baserriz betea noski, betiko baserriak ziren, egurrezko ateak, fatxada zuriak, teilatu gorriak eta noski animaliekin.

Baserritar batek 125 ardi zituen eta 12 arkume, baserritarra herrian oso ezaguna zen jendeari arkumeak saltzeagatik eta ez bakarrik orreagatik, bere izaera txarrarengatik ere bai. Gizon lodia, altua eta aspergarria zen, lasaizko egoten zen ardiak eta arkumeak zaintzen. Txakurrarekin batera lan guztiak erresazko egiten zituen.

Gizonak bere izaeratzarra ateratzen zuen bakoitzean ardiak kortara sartzen zituen. Artzainari izaera txarra otsoek ateratzen zioten ardiak lapurtzen zizkiotenean, horregatik sartzen zituen ardiak kortan.

Goiz batean irratian entzun zuen otsoak uxatzeko makina bat salgai zegoela, 155 eurorengatik. Berehala sartu zen salgai zegoen aplikaziora, erosia zegoen, hiru bost bat egun beharko zituen iristen. Hiru egun beranduago ipinia zuen.

Herrian zeuden familietako bat ederki bizi zen, euren umea, txakurra eta katuarekin. Neskabila bihurria eta abila zen, ez zen geldik egoten, eguna katua eta txakurrarekin pasatzen zuen, txakur elegante, handi eta iletsuarekin, katuak aldiz ile gutxi eta hanka finak zituen.

Gaua jauzi zen, denak ohera joan ziren, txakurrak ez zuen lorik hartu. Txakurrak kanpora irteteko atea zabaldu zuen eta katuak ihes egin zuen. Txakurra enteratu orduko gurasoengana joan zen abisatzera, katuaren bila abiatu ziren. Bizilagunei galdetzera joan ziren baina ez zegoen sorterik, auzo guztiari galdetu zioten eta hala ere ezer ez.

Bat batean, urrunean mantxa gris bat agertu zen, han zegoen euren katu tuntuna. Azkarrazko joan ziren aren bila baina katuak ihes egiten zuen behin da berriz. Behingoagatik katua gelditu zen, kostata baina lortuta zegoen, txarrena kilometro bateko bidaia zutela etxera heltzeko.

Etxera heldu zirenean denak ohera sartu ziren eta ez zen iskanbilarik entzuten.

Hurrengo goizean familia lagun batzuekin geratu zen hiruretan, ordu erdi falta zen, hala ere bertara abiatu ziren. Kotxean zoazela neskatilak otso bat ikusi zuen ardi baten atzetik, azkar asko esan zien gurasoei, hauei ez zien denbora eman ikusteko. Lagunekin elkartu zirenean, gauean gertatutakoa kontatu zieten. Hauek esan zieten euren txakurra ere arraro xamar zebilela azken aldian. Egun batean aulki atzean ezkutatuta aurkitu omen zuten.

Arraroa da ez da beldurtzekoa, beti lasai ibiltzen da eta. Esan zuen lagunak.

Herritarri galdetu zieten ea euren txakurrak ere arraro zebiltzan. Erantzuna baietz izan zen. Hor jada bazekiten zerbait gertatzen zela herrian, baina zer zen txakurrak beldurtzen ari zena, eta nor?

Poliziak ikerketa bat zabaldu zuen zer gertatzen zen jakiteko. Denborarekin jakin zuten otsoak beldurtzeko aparailu bat zela eta txakurrengan ere eragina zuena.

Pertsona bakarra zegoen otsoak usatu nahiko zituena, artzaina.

Hurrengo goizean artzainarengana joan ziren zer gertatzen zen galdetzera. Gizonak esan zien otsoak ardiak jaten zizkiotela eta hori ez gertatzeko makina bat erosi zuela denbora batetik bestera zarata izugarria bat botatzen zuena.

Poliziak esan zion ezin zuela hori eduki, inguruko txakur guztiak beldurtzen ari zelako.

Gizonak esan zuen kenduko zuela baina nola babestuko zituen ardiak galdetu zuen. Herritar guztien arten konponbide bat aurkituko ziotela esan zioten.